



### **Familia laguntzaren baldintzak eta zenbatekoak:**

Uztailaren 4ko 158/1984 Foru Dekretua, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzupeko langileen ordainsarien behin behineko araudia onesten duena. 30. artikulua eta ondorengoak (uztailaren 25eko NAO).

**Familia laguntza** gisa, funtzionarioek urtean kopuru bat jasoko dute, familia gorabeheren arabera. Kopuru hori kalkulatzeko, E mailaren hasierako soldatari ondoko ehunekoak aplikatuko zaizkio:

a) Diru-sarrerarik jasotzen ez duen ezkontideagatik: % 3,50  
b) Ezkontideagatik, baldin eta hari ebazpen judizialaren bidez ezarritako pentsioa ordaindu behar bazaio: % 3,50.

Pentsioa laguntzaren diru kopurua baino txikiagoa balitz, laguntza haren berdina izanen litzateke. Bi kasuetan, laguntza funtzionarioari ordainduko zaio, eta honek eman beharko dio zuzenbidez dagokion erabilera.

c) Funtzionarioarekin bizi den seme edo alaba adingabe bakoitzeko: % 3,00.

d) Funtzionarioarekin bizi eta ekonomikoki haren mende den aurreko nahiz anaia edo arreba adingabe bakoitzeko, ez aitarik ez amarik ez duen umezurtza bada: % 3,00.

e) Seme edo alaba urritu fisiko edo psikiko bakoitzeko: % 15,00 (22/1993 Foru Agindua, ekainaren 21ekoa).

Aurreko atalean aurreikusitako ondorioetarako, seme edo alaba urritu fisiko edo psikikoak beti hartuko dira emantzipatu gabeko adingabekotzat.

Familia laguntza hilabete bakoitzean aldaezina izanen da eta laguntzaren zenbatekoa finkatzeko, funtzionarioak hilabete naturaleko lehen egunean izanen duen familia egoerari jarraituko zaio.

Familia laguntza onartua izateko edo familia laguntza eskuratzeko behar diren baldintzak egiaztatzeko, funtzionarioak behartuak daude dagokion administrazio publikoko organo eskumendunari behar diren dokumentu guztiak aurkeztera.

Altak, bajak eta familia egoeraren bestelako aldaketak, familia laguntzaren zenbatekorako erabakigarriak direnak, hileroko jakinaraziko zaizkie dagokien organo kudeatzaileei, aldaketa horiek gertatu eta ondoko hamar egunetan.

Funtzionario izaeran gertaturiko altak eta bajak, zeinahi arrazoi dela ere, eragina izanen dute gertatu eta ondoko hilabeteko 1. egunetik aurrera.

Aitorpena osatzen duten datuak faltsutzeak, baje berri ez emateak edo okerreko familia laguntza jasotzeak dagokion egoera erregularizatzea ekarriko du, eta horrekin batera, jaso ahal izan diren okerreko diru zenbatekoak itzuli beharko dira, martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak onetsitako Estatutuaren Bigarren Tituluaren IX. Kapitulua ezarritakoa aplikatuz ondoriozta daitezkeen erantzukizunak gora-behera (abuztuaren 30eko 251/1993 Foru Dekretu Legegilearen IX. Kapituluko II. Titulua).

Bi ezkontideak funtzionarioak diren kasuan, bietako batek baino ez du jaso ahal izanen familia laguntza.

Ezkontideetako bat funtzionarioa bada eta bestea Gizarte Segurantzaren afiliatua badago, funtzionarioak hautatu beharko du behin-behineko araudi honetan arauturiko familia laguntza ala bere ezkontideari dagokiokeena.

Hau guztia jakinarazten dut, dagozkion ondorioak izan ditzan, eta adierazten dut, halaber, aipaturiko familia laguntzaren baldintzen berri badudala eta konpromisoa hartzen dudala administrazioari jakinarazteko familia laguntza hau berrikusteko arrazoia izan daitekeen gora-behera oro.

### **Aurkeztu beharreko dokumentazioa:**

- ◆ Diru sarrerarik jasotzen ez duen ezkontideagatik: Familia liburuaren fotokopia.
- ◆ Seme edo alabengatik: Familia liburuaren fotokopia.
- ◆ Minusbaliatua den seme edo alabagatik: Familia liburuz gain, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak luzatutako minusbaliotasun aitortpenaren fotokopia.